

...eta **kitto!**

710 zkia. 2010-II-19

ASTEKARIA

TOKIKOM

Ikastolak mende erdia Eibarren

EUKi

ARTEKARITZA


Torbio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**


**AUTO
ESCUELA**

CURSOS INTENSIVOS

**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR




...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu
tzu
zerbitzua

**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelera,
gaztelertik
euskara,
eta ingelesetik
euskara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.com





ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

J.A. Mogel Ikastola

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

GABERDI ZAHARRAK.- Gau beranduan. "Gaberdi zaharretan erretiru barik ibiltzen den errondalari amorratua izan zan hori gazte denporan". "Bazan Plaxentxian Gautxoria deitzen zetsen bat gaberdi zahrrak baiño lehen etxera juaten ez zekiana".

GABERDIKO AUNTZAREN EZTULA.- Hutsaren hurrengoa. Normalean ezezko eran erabiltzen da. "Gaberdiko auntzaren ezstula al da horretara lagatzeko gauzia, ahalegiña egin barik?".

ESKUTITZAK

ANDIRAO ELKARTEARI

Elkartek eskaini zuen prentsaurrekoaren ondorioz, hainbat komunikabidetan agertu diren informazioei erantzunez, puntu batzuk argitu nahi ditugu:

- Udal errodaren zentsuan azaltzen denez, Eibarko udalerriak dituen bost bailaretan 360 lagun bizi dira.

- Udal honek bultzatu zuen **Andirao** elkarte, baserrietako premiak eta eskaerak modu ordenatuan bideratzeko, ez aurretik egiten zen bezala, bakoitza bakarrik berak zuenaz interesatzen baitzen. Horrela egin da 2010eko aurrekontuetan.

- Udal honek baserri-auzoetan ahalegina egin du eta esparru horretako kontu-sail bat bera ere **ez murriztea** erabaki zuen, beste kontu-sail batzuk asko murriztu edo moztu direlako eta udal honen diru-sarrerak oso murriztapen handia izan dutelako. Azpimarratu behar dena da udal honetako talde politiko batek ere ez duela kontu-sail horiek berraztertze eskaerarik egin. Horren ondorioz, baserri-auzoetarako dirua 221.796 eurokoa da aurtengo honetan.

- Foru Aldundiak horrelako obra-motetarako ematen zituen laguntzak baztertu egin ditu; beraz, udal honek ehuneko ehunetan oraindik behar du egiten den edozein lan edo esku-hartze.

- Aipatzen dituzuen hobekuntzak egiteko 120.000 euroko kontu-sailari dagokionez, Udaletik esan zen ikusiko zela kaminioak konpontzeko zenbateko hori Estatuak 2010erako jarri duen

Fondoaren laguntzetan sartzeko aukerarik zegoen. Azaldu zitzaizuen bezala, aukera horrek ez zuen aurrera egin; hori egiteko aukera bakarra 2.000 biztanlelik beherako herrietan baitago. - Udalak baserri-auzoetan inbertsio handiak egiten ditu, azpiegituz gain. 2009. urtean, izandako haizeteetan eta euriteetan, 40.760 euro inbertitu ziren bideak eta lurjausiak konpontzen. Bestalde, neguan zehar izandako elurteetan, elurra kentzeko makinaren gastua 21.470 eurokoa izan da.

- Gizarte arloari dagokionez, udalak urteak daramatza Arratek Eibarrerako umeen garraioa bere gain hartzen. Gizartekin-tza sailak ere ikastaro bat antolatatu du "Zaintzaileen zainketa" izenekoa, baserrietan bizi diren lagunendako bakarrik. Baserri-auzo bakoitzeko jaietako kontu-sailak ere eutsi egin zaie, auzo bakoitzak duen tradizioa gordetzearren.

- Udalak beste hainbat proiektu ditu Arrate hobetzeko: besteak beste, miradore edo begiratoki bi ipintzea -Santa Kurutzen eta Arrateko gurutzan-, alde horietako aisialdia hobetzeko.

Udal honek lanean jarraituko du eta Eibarko hiria hobetzen, bai kalea, bai baserri-aldea; horretarako denen laguntza behar da beharrezkotzat jotzen diren proiektu guztiak aurrera aterata eta egun dagoen egoera ekonomikoari aurre eginez.

NEREA ALUSTIZA ALONSO
(BASERRI AUZOETARAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA)

JUAN ANTONIO MOGEL IKASTOLAREN URTEURRENAREN INGURUAN

50 urte betetzen ditu aurten Eibarko ikastolak, eta hain data garrantzitsua ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuko ditugu martxoan, tartean Ikastolaren sorrera eta hasierako urteak erreparatzen dituen bideo bat. Bideo hori hornitzeko, hainbaten testigantza jasotzeaz gainera, argazkiak erabiliko ditugu, eta posible balitz, garai hartako irudiak ere bai. Hori

dela-eta, etxean urte haietako pelikularen bat baduzue, eskertuko genizueke pelikula horiek bideoan erabiltzeko lagako bazenizkigute. Gurekin harremanetan jartzeko deitu 943701958 telefonora.

Aldez aurretik eskerrik asko.

J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Arduratzan nau jendeak uste izatea lortutako bizitza maila betirako ziurtatuta dagoela. Urrutira joan gabe ere, ikusi dezakegu gizarte aberatsak zelan pobretzen diren... Argentinan gertatu da. Erromatar Inperioan ere gero Erdi Aroan baino hobeto bizi ziren. Gizarteak, aurrera bezala, atzera ere egiten dute. Inork ez digu ziurtatzen gure seme-alabak gu baino hobeto biziko direla."

(Joan Guinovart, Espainiako Elkarte Zientifikoetako presidentea)

"Burmua zaintzea komeni da, 30-35 urtetik aurrera zahartzen hasten da-eta. Adin horretan garunetako hainbat prozesu abiadura galtzen hasten dira; horrela, adin batera heldu garenok galdetzen badigute zein abesti dakigun, 30 urtera iritsi aurretikoak gogoratuko ditugu, ez besterik. Adinarekin burmuin-aktibitate guztiak kaxkartzan joango dira, kenduta emozioen kontrola."

(Jose Felix Marti, neurologoa)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

POLTSA BERRERABILGARRIEN BANAKETA

Udalak 12.500 poltza berrerabilgarri banatuko ditu herritarren artean. Honen helburua "herritarrei ingurumenaren gaineko garrantzian kontzientziaztea da", Jesus Rementería Ingurumen zinegotziaren berbetan. Horrela, plastikozko poltsak erabiltzeari utzi eta berrerabilgarri hauekin ibiltzea lortu nahi da.

ZAINTZA ETA KONTROL OPERAZIOAK

Udaltzaingoak 2010. urtean zehar egingo dituen zaintza eta kontrol operazioen egutegia igorri du. Otsailaren 25era arte, adibidez, mugikor eta segurtasun-gailuena egingo da. Martxoan, berriz, 8tik 14ra merkantzia garraioena egingo da, eta 18tik 31ra abiadurarena.

UDALA 2.0

Administrazio elektronikoa iritsi da Udalera. Herritarrekiko harremanen eremuan modernizazio proiektua gauzatuko du Udalak aurtan. Proiektuak webgune berri bat sortzea aurreikusten du, informazioa eskaintzeaz gain, eskaerak erregistratu eta edozein izapide modu telematikoan egin ahal izateko. Horretarako, bestetik, ONA txartela edo NAN elektronikoa behar izango da.

Egunkariaren aldeko elkartasun eguna bihar

EUSKALDUNON EGUNKARIAREN AURKAKO EPAIKETA EGITEN DIHARDUTE MARDILEN, egunkaria itxi eta zazpi urteren ostean. Horren aurrean, Euskal Herri osoan, eta baita munduko toki ezberdinetan ere, ekimen ezberdinak egin dira auzipetuei elkartasuna erakutsi eta epaiketa salatzeke. Horrela, bihar ekitaldi berezia egingo da Untzagan, 12.30etatik 14.00etara, Egunkaria Libre aldarria entzunarazteko.

Biharko ekitaldian ikastetxe, musika talde, kirol elkarte, dantza talde, abesbatza, elkarte gastronomiko, dendari, komunikabide eta abarrek hartuko dute parte eta, antolatzaileen berbetan, "herritar guztiak" daude gonbidatuta ekitaldian parte hartzera.




Eguerdian egingo den ekitaldira gerturatzeko direnek "marraski bat, olerki bat, dantza bat, lau berba, kantu bat..." bakoitzak nahi duen baliabidea erabilita islatu ahal izango dute euren aldarria eta horiek guztiak mural batean pilatuko dituzte. Egunkariako auzipe-

tuei babesa emateko egingo den murala amaitu eta Txaltxa Zelaian kokatuko dutela azaldu dute ekitaldiaren antolaketaz arduratu diren Eibarko euskalgintzako eragileek eta jaialdi honetan parte hartzera animatu nahi dute jendea, "Eibarko herriak Egunkariari adierazi dion babes zabala bihar ere ikusiko dugulakoan".

Leire Ereño, Hamaikabat-eko mahaiko buru

LEIRE EREÑO EIBARREN BIZI DEN PASAIATARRA AUKERATU DUTE HAMAIKABAT ALDERDIKO ASANBLADA OROKORREKO mahaiko presidente. Aurretik ere politika arloan esperientziaduna da, alderdia bitan banatu aurretik, EA alderdiko kide gisara 2003an Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidente kargua bete zuen, 2007an alderdi so-

zialistako kidea den Rafaela Romerok bere tokia hartu zuenera arte. Orduz geroztik esparru pribatuan jardun du beharrez. Ereño EHUKo unibertsita-



tatean Zuzenbidean lizentziatuta dago eta, gaztea izan arren, politikari lotutako ibilbide luzea darama: 1995-1999 legeingintzaldian Pasaiako Udaleko alkateordea izan zen, Hirigintza zinegotzi kargua betetzeaz gain. Hurrengo lau urteetan zinegotzia izaten jarraitu zuen eta, horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundian Ingurumen saila zuzendu zuen.

Hilaren 27rako manifestazioa deitu du LABek

LAN HARREMANETARAKO EUSKAL ESPARRUA ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN aldarrikapenari jarraituz, datorren astean, zapatuan Untzagan egingo den manifestazioan parte hartzeko deialdia egin du LAB sindikatuak. Sindikatuko ordezkariak diotenez, "krisiak gogor kolpatu du Debabarrenako eskualdea eta milaka beharginek lanpostua galdu dute. Gainera, gure es-

kubideen murrizketa jasan behar izan dugu: soldatak jaitea, Lan Erregulaziorako Espedienteak, laneko segurtasunean atzera egitea, malgutasuna, kaleratzeak... prekarietatera bazter guztieta-za zabaldute eta orain beraien krisia ere geuk ordaindu behar dugu". Horren aurrean, protesta egiteko manifestazioa deitu dute otsailaren 27rako, 12.00etan.


JAVIER NARBAIZA ARANA (2010-II-11)



"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"

ARRATEKO APAIZA XABIN ETA ARRATEKO AMAREN KOFRADIAKO BATZORDEA

BERE ALDEKO MEZA OSPATUKO DA DOMEKAN (OTSAILAK 21) EGUERDIKO 12.30ETAN, ARRATEKO SANTUTEGIAN.






Eibartarrak kanpora joan beharra ekidin nahi du EAK. / EKHI BELAR

Egogainen psikogeriatria irekitzeko eskaera

EUSKO ALKARTASUNEN ORDEZKARIEK EGOGAINEKO GERONTOLOGIA ZENTROAN "erabiltzen ez den" psikogeriatria unitatea dagoela salatu zuten, prentsaren aurrean atzo goizean egindako agerraldian: "Inbertsio handia egin zen horretarako eta lau haizetara zabaldu zuten hura egingo zela, baina gaur egun 13 bakarkako logela libre daude, inork erabili gabe. Arazoak dituzten eibartarrak, berriz, hemendik kanpora joan behar izaten dira tratamen-


dua hartu ahal izateko". Une honetan egoera hori bizi duten lagun bi ezagutzen dituztela azaldu zuen Juan Luis Cristobalek: "Azkoitiara joan behar izaten dira eta, euren egorak okerrera egiten badu, handik Zumarragara bidaltzen dituzte". Gai honen gaineko eskumenak Foru Aldundiak baditu ere, "Udala da eibartarron ongizateaz arduratu behar dena, beraz, psikogeriatria zerbitzua zabaltzeko bere esku dagoena egin beharko lukeela uste dugu".



Eibar Factoring berezia martxan

ASTELENA FRONTOIA ETA ARMERIA ESKOLA IZAN DIRA AZKEN URTEETAN EIBAR FACTORING, Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatzen duen neguko beherapenen azoka. Aurten, baina, bestelako formulari jarraitzea erabaki dute eta, denda guztien eskaintza gune bakarrean batu beharrean, bakoitzak bere dendan egingo du eskaintza, prezio bereziko artikulua salgai ipinita. Atzo hasi zen merkealdi berezi hori gaur eta bihar ere aprobetxatzeko moduan egongo da, ekimenarekin bat egitea erabaki duten honako dendetan: Arizona Jeans, Bianco, Cedry, Corral, Garmen, mutilen Guby, Gratzina, Irritsa, Lide, Narrua, Selene, Valenciaga, Vieco, Ikusimakusi, Kopifña, Nimú, Errebal kirolak, Kross Sport, Aramburu, Galarreta, Goien, Nona, Pissa, Tribeka, Casamania, Decoraciones Aixa, Izane, Jauregi, Mamacas, Ansa, Dirdai, Federópticos Igmar, Multiópticas Eibar, Zentral Óptica, Zurkulu eta Farmalur-en.

anzorik anzo



Eskaiera mekanikoak Jardinetan

Ignazio Zuloaga Institutu alboan dauden eskailaren ondoan eskaiera mekanikoak egingo dituzte urte amaierarako. Lau zati izango dituzte, 23 metroko altuera gaintutako dute eta mila bizilagunei eskainiko die zerbitzua. Proiektu honen aurrekontua 1.360.000 eurokoa izango da eta Inbertsio Lokaleko Estatu Fondoak finantziatuko luke.


Jardinetan kaleko bizilagunei zerbitzua eskaintzeaz gain, Sakun parkera joateko aukera emango dute eskailerek. Gainera, auzoaren goiko aldean babes ofizialeko 55 etxebizitza egiteko proiektua dago martxan, beraz, onuradunen kopurua handitu egingo litzateke.

eibar kalea

Arragueta Zeharra kalea

Arragueta eta Bittor Sarasketa bitartean dagoen pasabidea, kale labur horri deitzen diogu Arragueta Zeharra. Etxebizitza gutxi egon arren, jandeak asko erabiltzen duen pasabidea da, besteak beste Arragueta tren geltokira ailegatzeko Estaziño kaleraino joan eta hura zeharkatzea saihesteko aukera ematen duelako eta, horrez gain, hainbat enpresa hartzen duelako.

Pegora kopurua: 2. Erroldatutakoak: 10.



asteko
50.000
datua

euroko diru-sarrera izatea aurrekusi du Udalak, telefono mugikorren enpresei kobratuko dieten zergaren arabera kalkulatu jarraituta. Zerga berria zorupearen okupazioari dagokio eta aipatutako enpresek izaera publikoa duen espazioari erabilera pribatiboa ematen diotelako kobratzea erabaki da.



Eguzki-plakak Ipurua foball zelaian

UDALAK HERRIAN ENERGIA BERRIZTAGARRIAK EZARTZEN JOATEKO DITUEN ASMOEI JARRAITUTA, Ipuruan eguzki-energia aprobetxatzeko modua bada-goela uste du eta, horregatik, Ipuruako foball zelaian eguzki-plakak ipinita energia fotoboltaikoa lortzeko proiektuari indarra eman nahi dio eta, Udaleko arduradunen berbetan, "ekimen honekin ingurumena-

ren defentsaren ikuspegi globalagoa eman nahi dugu". Proiektuan aurreikusten duenaren arabera, plakak zelaian bertan, hegoaldeko tribunan ezarriko dituzte eta, horretarako, 500.000 euroko inbertsioa egingo dela aurreratu dute. Espainiako gobernuak udalei herrian inbertitzen laguntzeko fondotik diru-laguntza jasotzeko eskaera dagoeneko egin duela azaldu du Udalak.

Mila sinaduratik gora batu ditu Arrateballe Bizirik-ek

ARRATEBALLE BIZIRIK TALDEKO HAINBAT LAGUN PEGORAN IZAN ZIREN ASTELEHEN EGUERDIAN, Teknikerren egoitza berria Erisono jasotzeko proiektuaren kontra batu dituzten sinadurak aurkezten. Euren berbetan, Arrateballe babesteko eskaerarekin bat egin duten "milatik gora sinadura" batu dituzte herritarren artean.

Herritar askok sinatu duten idatziak jasotzen duenari jarraituz, "ez da onargarria obra hauek egiteko behin-behineko lizentzia bat eman izana, bistan baitago egin den lur mugimendu ikaragarriak sorturiko kalteak ez duela bueltarik. Bestalde, onartu duten Plan Partzialak, begi-inpaktu itzela izan arren, hamaika eta hamairu garaierako eraikinak bertan egitea aurrakusten du".

Horrez gain, Teknikerrek urte gutxiren buruan oraindik ere gehiago hazteko asmoa duela azaldu dute Arrateballe Bizirik-



Pegoran aurkeztu zituen taldeak Erisonoko proiektuaren kontrako sinadurak. / EKHI BELAR

eko kideek: "Teknikerrek 2015. urterako, Arrateballen bertan, lantegi gehiago ezartzeko beste 310.000 m² urbanizatzeko asmoa daukala publiko egin duela ezin dezakegu ahaztu. Horrek ia Maltzagarraino eraikitzea ekarriko luke eta, aurrera eginez gero, ingurugiroari Eibarren inoiz egindako erasorik latzena izango litzateke. Eta ezin dugu ahaztu Udal ordenamenduaren arabera, Teknikerrek

beste alternatiba batzuk badi-tuela (Matsaria I, Ibur-Erreka eta abar)". Hortik aparte, Udalbatzari puntu bi jasotzen duen mozioa helarazi diote: lehenengo puntuan Udalar "landa eremua, Arrateballe barne, herriaren ondareztat hartzeko" eskatzen diote eta bigarren puntuan, berriz, "Arrateballe babestua dagoela bermatzeko egokia den formula juridikoa aurkitzeko konpromisoa hartzea".

CMEko langileen egoeraren salaketa

CME-KO LANGILEEK EUREN EGOERAREN INGURUAN AURRETIK EGINA DUTEN SALAKETA berretsi nahi izan dute, komunikabideei helarazitako idatzian: "Zalbidegoitia jaunak (BBKko kontseilari eta EAJko zuzendaritzako kideak), Lamikiz Ibarondo abokatu ezagunaren laguntzarekin, miseria ekarri du

gure etxeetara". Itziarko industrialdean dagoen lantegiko 87 familia "6 nomina noiz kobratuko zain" daudela gogora ekarri nahi dute eta, Euskal Herrian egonda ere, enpresa-buruak "Hirugarren Munduan egongo bailiran mugitzen dihardutela" diote eta, horren aurrean ez direla isilik geratuko azpimarratzen dute.



Itziarko enpresako 87 langileren egoera salatzen dihardue.


Alokairuko ama haurdun gelditu eta umia euki ostian beran gurasuak izango baziran moduan ume hori hezitzea akordixo baten bittartez onartzen daben emakumia da. Frantziako Bioetika Legiak, bost urtetan zihar eztabaidatu ostian, bikotez kanpoko alokairuko amarik ez baimentzia erabaki dau.

Alokairuko amak zelan ikusten dozuz?



MARINA FLORES
40 urte
langabia

Oso gai berezixa da hau eta begittantzen jata nahiko pertsonala dala. Bakotxak ikusi biharko leuke zer egin kasu bakotxian. Neri, modu batian esatiarren, bildurra emongo zestan. Eta beste aldiak azkenengo momentuan ezetza emon eta atzera egitten badau? Gatxa da.



ENCARNA TERUELO
61 urte
etxeoandria

Nik ondo ikusten dot. Alde batek ezin badau haurrik euki, pentsatzen dot aukeria emon bihar jakuela. Izan be, bizitzarako aukeria emon bihar da. Gaiñera, umia emoten daben horrek beharriaznak baditu, askoz be hobeto.

MIKEL BARINAGARREMENTERIA
26 urte
mekanikua

Ba, beste barik. Baten bat haurdun gelditzen bada eta ezin badau eukiko daben ume hori hezitu, zergaittik ez? Izan be, zer egin bihar dozu bestela? Ondo begittantzen jata alokairuko amak egotia, alde bixak ados jartzen badira, ez dago arazorik.



EDUARDO FIDALGO
42 urte
iturgiña

Nik pentsatzen dot umia euki nahi eta ezin dabenak badagoz, beste bati esan leikiela euren partez umia euki eta eurek hezitzea gero. Alde bixak konforme badagoz, zergaittik ez? Ez detsat iñungo kalterik ikusten alokairuko amak egotiarri.





etorri surretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ORDIZIA
OTSAILAK 25 osteguna - 17:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI
MARTXOAK 6 larunbata 10:00-13:00

IRUN

OTSAILAK 20 larunbata 10:00-13:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORRIATZA
MARTXOAK 11 osteguna - 18:00

ARETO NAGUSIAN



Ikastolak mende erdixa beteko dau gurian

Juan Antonio Mogel ikastoliandako urte berezixa izango da aurtengua, gure herrixan bere bidiari ekin zetsala 50 urte beteko diralako martxuaren 11n. Aurretik be ikastolia sortzeko pausuak emonda eguazen, Euskal Herriko beste herri askotan indarra hartzen zioian mugimenduetarekin batera. Orduan sasoiari ausarta izan bihar zan euskeraz klasiak emoteko eta baitta be seme-alabak oindiok jaixo barri-barrixa zan eskolara eruateko. Mende erdiko ibilbidian gure ikastolak izan dabon billakaeriari erreparatxua emoteko aitzaki paregabia izango da 50. urteurrena eta horren inguruan antolatzen diharduen ekitaldixak.

Eibarko ikastolaren urtebetetzia ospatzeko ekitaldixak antolatzen diharduen Ana Iriondo, Lourdes Perea eta Virginia Narbaiza Mogel ikastolako zuzendaritzako kidiak eta Edurne Zenarruzabeitia ikastolako Haur Hezkuntzako tutoria eta Iturburuaren 25. urteurrena zuzen-zuzenian bizi eban irakasliak. Eurekin batera Ikastolako Gurasuen Elkartiak guraso morduak urteurren ospakizunekin bat egittia lortu dau eta, bestiak beste, urteurrena gogoratuko dabon arropia eta bestelako materixala salgai ipintzeko asmu dake, ekitaldixetan biharrian jardutiaz aparte.

Ikastolako irakasliak kontau deskuenenez, *“ideia mordia darabiguz buruan eta aurrerago be egingo dittugu jarduera gehixago, baiña oin momentuan begixak martxora begira ipiñitta dittugu, orduan beteko diralako ikastolaren sorreraren 50 urtiak eta hori gogoratzeke ekitaldixak lotuta daguzelako”.*

Mende erdixa bete dabon edozeiñi ez jake



faltauko zer kontau eta Mogel ikastolia ez zan gitxiago izango. Horregaittik, Untzagako jubilau etxian honek urtiotan ikastolak bizi izandakua batu eta gogoratzeke erakusketia zabalduko dabe martxuaren 5ian. Antolatzailliak diñenez, *“ez dogu nahi bakarrik argazkixak batuko dittuan erakusketia antolatzia. Bestiak beste ikastolako lehelengo andereñua izan zan Mari Tere Munduatek orduan sasoiari klasiari erabiltzen zeban materixal eta bestelakuekin orduko girua gogora ekartzeko txokoren bat preparau nahi dau eta beste kontu batzuk batzen dihardugu baitta be”.*

Lehelengo andereñua

Ikastolako lehelengo andereñua aittatuta, orduan sasoiari andereñuak egindako biharra eskertzeke hainbat ekimen sortu dira azkenaldixan. Gipuzkoako Foru Aldundixak 60ko hamarkadan euskerazko hezkuntzaren oiñarrixak ezarri zittuen andereñuak omendu nahi izan zittuan, Gipuzkoako Urrezko Domiña emonda. Horrekin lotuta, www.eskerrikaskoandereño.com webguriari sasoi hartako andereño eta ikastolierekin lotutako hamaika kontu, argazkixak barne, batu dittue.

Herri guztietan lehelengo pausua emotera animau zan andereñoren bat egon zan eta gurian andereño hori Mari Tere Munduate izan zan. Ikastolako lehelengo andereñuak 1960xan ekin zetsan klasiari emotiari eta 1967ra arte jardun eban horretan. Urte batzuetan klasiari emotiari laga zetsan, ezkontzian, eta bere tokixa betetzeko Amaia Aseginolaza andereñua ekarri eban. Urte batzuk pasauta, 1974. urtarian atzera be bueltau zan ikastolara eta hantxe jardun eban irakasten, 2001ian jubilau zanera arte. Lehelenguetakua izan zan, baitta, aurtengo urtarillian hil dan Mari Sol Aranzeta. 1963. urtarian, ikastolia sortu eta hiru urtera. Eta Mar-



Lehelenguetako geletako bat, ikasle txikixekin.


Laugarren urteurrena

IOSU TREBIÑO GARITAONANDIA

2006-11-17an hil zen



Haren aldeko meza *hilaren 21ean, domekan, ospatuko da San Pio X. elizan, eguerdiko 12.00etan*



garita Murgizu be lehelengo andereñuen taldian egon zan, beste batzurekin batera. Andereño horrek iñork baiño hobeto ezagutu zittuen orduan sasoiak klasiak euskeraz emon ahal izateko gairitu bihar izan zittuen traba guztiak: klandestinidadia, klasiak emoteko lokalik ez eukitzia, materixalik ez, dirua faltan...

Bidebarrietako etxe batian

Izan be, bestelako ikastolia ezagutu daben irakasliak gogora ekarri deskuenez, "lehelengo klasiak Bidebarrietako etxe batian emoten hasi ziran. Edade diferentietako ume txikixak, danak alkarrekin egoten ziran. Gerora be hamaika etxe euki dittu ikastoliak Eibarren eta hasierako urtietan Elizaren babes haundixa jaso, parrokietako lokaletan eta jarduten eben klasiak emoten".

Iturburu oin dala 34 urte zabaltzia be ondo kostautakua izan zan, baiña herritar askok bat egiñ eben proiektuarekin, dirua emonda edo besteko laguntasuna eskinduta eta, horri esker, umiak herri-zulotik etartzeko asmuarekin mendi inguruan jasotzeko helburuari segiduta jasotako ikastolia errealidade bihurtu zan. Gaur egunian Juan Antonio Mogel ikastolia osatzen daben ikastetxiak Haur Hezkuntza eskintzen daben Sansaburu eta Argatxa, Lehen Hezkuntzako ikasliak hartzen dittuan Iturburuk eta DBH-ko ikasliak betetzen daben Mogel-Isasi dira.

Sasoi hartako lekuko zuzenak izan ziran Eibarko euskaltzale mordua eta euretako batzuk mahainguru batian batuko dittue martxuaren 11an. Irakasle, sortzaille, ikasle ohi eta bestelakuak ordezkaturko dittuan tal-



Marisol Aranzeta eta Maritere Munduateren taldia.



Ester Onaindiaren taldia.



Margarita Albisu eta Amaia Aseginolazaren taldia.



Margarita Murgizuren taldia.

**LEHELENGO
OSPAKIZUNAK**

Martxuak 5, barixakua

Ikastolaren erakusketia zabalduko da Untzaga jubilauean etxian. Martxuaren 14ra arte egongo da zabalik, astegunetan 18.30xetatik 20.30xetara eta jaiegunetan 12.30xetatik 14.00etara eta 18.30xetatik 20.30xetara.

Martxuak 11, eguena

Ikastolaren sorreraren gaineko mahaingurua, 19.00etan Untzaga jubilauean etxian.

Martxuak 13, zapatua

Jaialdi nagusixaren eguna. Goizian eta arratsaldian, Untzagan, plaza bixetan, umiendako puzgarriak, taillarrak, musikia, urteurrenaren inguruko materixala saltzeko dendia, tabernia...

detxua batuko dabe horretarako. Eta mahainguruari laguntzeko, ordu laurdeneko iraupena izango daben bideo bat osatzeko biharrian dabilta hainbat lagun.

Umiak protagonista ikastolaren jaialdixan

Eta martxorako preparautakuak birbiltzen, ikastolaren jai haundixa izango dana martxuaren 13an ospatuko da, egun osuan, Untzaga-ko plaza bixetan egingo dan ekitaldi berezixan. Eta egun horretako protagonista nagusixak, duda barik, 50 urte bete arren beti gazte egotia eragitten daben umiak izango dira.

Optika Beitu
OPTIKOZ ABLITIBOZ

Ondo mitzun habeto biltzeko

Amplifon-ek, entzumen-konponibideetako munduko liderrak, honakoa eskaintzen dizu:

- Entzumen-azterketa doan
- Probetu audifonak doan 30 eguner
- %20ko deskontua edozein audifono erosterakoan
- Gainera, arabiltsaile izanda, zure audifonoaren azterketa doan egin eta pila pakete bat opartutako ditugu.

OPTIKA BEITU - JAILAN ETXEBERRIA, 13
20600 EIBAR - 943 75 02 30
(Bilaak aurretik telefonoz hitzartutako dira)

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrietako 20 - beheko, eskutxo

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errozketa laber
Egokibon (Signo poligonoz)
Partikular, mitxo eta desaguri oneri zerbitzuak
Korak - Eskelak - Urturizako iribelak
Euskal Herri osoko ospitaleen hartzen ditugu
Nazio eta Nazioarteko traxajeak

Mugica Ehorzketa
Ehorzketa laber

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

TEEN-
AUEA



Herriko atletismoak harrobi indartsua daukala erakutsi zuten duela gutxi jokatu ziren Gipuzkoako txapelketek. Bertan hainbat domina lortu zituzten eibartarrek eta etorkizuna badagoela erakutsi zuten. Izen propioen artean Ibrahim El Moussaouirena agertzen da. Etorkizun paregabea izan dezake 15 urteko mutil honek atletismoan.

IBRAHIM EL MOUSSAOUI, atleta:

“Lortutako emaitzak lan gogorraren ondorio izaten dira”

- Azken aldi honetan oso emaitza onak lortzen ari zara atletismoan. Zer moduz sentitzen zara?

Oso pozik. Uste dut lortutako guztia entrenamenduen emaitza dela eta, zentzu horretan, Inmari, nire entrenatzaileari, eskerrak eman beharko nizkioke, batez ere.

- Espero zenuen lortutako emaitzak eskuratzea?

Beno, horretarako prestatzen naiz aste osoan zehar; beraz, aurretik egindako lan guztiaren ondorio dira emaitzak. Hala ere, zaila da gauzak ondo irtetzea eta atzetik dagoen sufrimendua ez da txikia.

- Proba ezberdinetan hartzen duzu parte.

Fondoan, jauzi hirukoitzean eta jabalanan aritzen naiz eta, egia esan, hiruretan lortu ditut nahiko emaitza onak.

- Zeinetan jarduten duzu gustokoen?

Fondoa egiten hasi nintzen, baina Inmak ikusi zuen bai jabalinarekin bai jauzi hirukoitze-

an ondo ibiliko nintzatekeela. Oso pozik dihardut hiruretan.

- Noiz hasi zinen?

10 bat urte nituenean eta irakasle bati eskertu beharko nioke. Soinketa egiten genuenean ikusten zuen azkarrena nintzela eta ondo aritzen nintzela; horrela, berak ezer esan gabe atletismoan sartu zuen nire ize-na. Hara joateko esan zidan, nahiko engainatuta, baina probatu egin nuen eta gustatu egin zitzaidan.

- Nolakoak izaten dira entrenamenduak?

Astean hiru egunetan aritzen naiz eta bakoitzean ordu bi egiten ditut lan. Batzuetan gogor-rrak izaten dira, batez ere txapelketaren bat edo prestatu beharra dagoenean.

- Zein da zure ametsa atletismoaren munduan?

Ametsa Joko Olinpikoetan parte hartzea izango litzateke, baina badakit oso zaila dela, ia ezinezkoa. Hala ere, oso gaztea naiz eta poliki-poliki lanean jarraituko dut.

Ugaldea poligonoa, 11. Pabilioia 20170 USURBIL



**Bulego altzariak
eta materiala**

PAPERDENDA

Tel. 943 365892
Faxa. 943 371686
Mobila. 687 828590
fatima@manpel.com
www.manpel.com



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97




Publi.resa@euskalnet.net

UMORIAK HOTZARI IRABAZI DETSA ARATOSTIETAN

Elurrak zuritutako paisaje ikusgarriarekin esnatu giñan Eguen Zurixan. Ikastetxietako kalejirak protagonista izan ohi dituan egunian, baiña, gitixik espero eben "bisitita" ez zan oso ondo hartu. Hotza koko-jantzitako umiendako aproposa ez zala eta, bakotxak bere ikastetxiaren epeltasunian ospatu zittuan Aratostiak. Iturburukuak, gaiñera, ikastolaraiño igotzerik ez eben izan eta Euskal Herriko Aratostiak ardatz izaten daben kaljiria, ikastetxian bertan egittiaz gain, martitzeneraiño atzeratu bihar izan eben.

Untzagako karpak eskindutako babesari esker, programaziñuan aurreikusittako ekitaldixak egitteko arazorik ez zan egon: play-back lehiaketia, karaokia, umiendako diskotekia, pella-lehiaketia... denetarik izan zan aukeran. Kalejirak, euripian baiña umore paregabiarekin egin zittuen barixkuan kaldereruak eta zapatuan, barriz, Ustekabe eta beste kuadrillak.

Jende asko koko-jantziera animatiaz gain, Udalak antolatutako taberna lehiaketan parte hartzeko 13 tabernarik emon eben izena eta sarixa Klub Deportibo tabernia zabaldu barri daben gaziendako izan zan, Asterix eta Obelix personajejen inguruko dekoraziñuarekin. Eta martitzenian, oindiok mendi puntak erakusten eben zurixari kontrajarritta, baltza nagusi izan zan, jaixari agur esateko egin zan sardiñaren entieruan.



GREMIOEN GIDA

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12

ANTENAK

BALATZ S.L.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

AROTZAK

ulmar
S.L.



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

Obra gauzate proiektuak
Obra zibila eta eraikuntza
Obra osoa, giltza eskura
Gremioen koordinazioa
Beherehabilitazioa etxeetan
Etxeetako errehabilitazioa
Fatxadetako errehabilitazioa



ELGETA-KALE (Punto y Aparte-ren ondoan)
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799
Faxa. 943 530 392 ailaproiektuak@hotmail.com

Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98
ROSARIO 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota
guztietako lanak

Ateak - Tarimak
Altzariak

Milaflores 10

Tfnoa. 943 20 55 55

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC

INSTALAZIO ENERGIKOA
TELEKOMUNIKAZIOA
INDUSTRIA BANTERUA
ARREBATUAK
ERREFORMAK

GARBIKETAK

Escudero

INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13

Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

Aroztegia Ebanisteria
 Obra aroztegia

Expresos N

Egiturak, barruko eta kanpoko ateak,
armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,
eskilarak, miradoreak, moldurak, aholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

**ELECTRICIDAD
I B A S L.**

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

CRISTALUX

Complejo

cristaluxe@gmail.com

Tfnoa. eta Faxa:
943 20 65 08

Mobila:

659 58 35 32

Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

SUKALDE ALTZARIAK

*
AROTZEGIA

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaita eta
proiektu elektrikoak



Matsaria 2 - 7. pabilioia

Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27

www.electricidadgurria.com

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171

Barrena, 26 - 6. C



**TREJO
GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta
mantenimendua

- Barne apainketak
- Mantenimendu
eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11

Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK

irazabal
CONSEJO REGULADOR, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitin Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

KLIMATIZAZIOA

klimatizazioa
energi berriztagarriak
proiektuak

santillán
klimadenda™

Txaltxa-Zelai, 14
Tel. 943 03 10 00 Faxa. 943 53 10 18
info@klimadenda.com www.klimadenda.com

- PINTURAK
- ESTUKOAK
- GOTELE
- PAPERZATATZE
- LAMINATUAK
- KORTXOA
- MOKETA
- SINTASOLA

Arregui y Cortes, C.B.
Ego-Gain, 3 Tel. 943 20 34 09 Mob. 600 587 335

ITURGINTZA

INDA iturgintza

UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Baisu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxe: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63 **Asua-Erreka, 2**

KRISTALAK

ACHA
Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}
eta faxa: 943 20 39 03

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Pintura
Goi mailako dekorazioa

Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxe: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

SARRAILAGINTZA

GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

PINTURAK

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kokakazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etzerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

San Juan, 15
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

PINTURAS ARRATE, S.L.

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

Lehen gerriko beltzak emakumezkoen babes pertsonalerako

KALAMUAKO JULIO GALLEGO ETA MANU AGIRRE JUDO-KAK Euskadiko lehenengo gerriko beltzak dira emakumezkoen babes pertsonalean. Biek ere Madrilen gainditu zituzten zapatuan horretarako egindako azterketak; arratsalde berean, kobudo modalitateko gerriko beltza ere eskuratu zuten. Bihar, bestalde, jokatuko dira Legazpian jiu-jitsu entrenamenduak Euskadi ordezkatuko dituzten senior, junior, kadete eta infantil mailetako taldeak osatzeko; hor izango dira Kalamuako zortzi ordezkarari postu horietakoren baten bila.



tateko gerriko beltza ere eskuratu zuten. Bihar, bestalde, jokatuko dira Legazpian jiu-jitsu entrenamenduak Euskadi ordezkatuko dituzten senior, junior, kadete eta infantil mailetako taldeak osatzeko; hor izango dira Kalamuako zortzi ordezkarari postu horietakoren baten bila.

Herriko areto-foballeko denboraldiko unerik onenean

ASADOR AZITAINEN PARTIDURIK GALDU GABE DARAMATZA IA LAU HILABETE, azaroaren hasieratik: azken aldian, 11 garaipen eta berdinketa bat lortu ditu, denboraldi hasieran garaipen bi eta lau porrot izan zituenean. Jubenil mailako taldearen bilakaerak Gipuzkoako 1. mailako sailkapeneko lidergora eramandu. Seniorretan, Nazional B mailako Concepto Createch-ek ere ez ditu igotzeko itxaropenak galdu eta sailkapenean Lasakorain liderrarengatik bost puntura dago, oraindik ere talde hau Elgoibarren hartu behar duenean; Conceptok, gainera, Eibarren jokatu du lehen aldiz asteburu honetan.



Hegaleko Törö sasoi onean dago.

Arrate, bere etorkizuna erabaki dezakeen une berezian

GAUR BERTAN DERRIGORREZ IRABAZI BEHARREKO NEURKETARI EGINGO DIO TE AURRE JULIAN RUIZEK ZUZENTZEN DITUEN MUTILEK. Gaueko 21.00etan Ipuruan hasiko den partiduan, Frigoríficos del Morrazo azken sailkatua izango dute aurkari; oso atzean badago ere, Canguaseko taldeak azken asteburu

ruan oso erraz nagusitu zitzaion Octavio Pilotes Posadari eta horrek arriskutsu bihurtzen ditu. Jarraian, eibartarrak Toledora joango dira bertako Lábarorekin neurtzeko eta gero Alcobendas hartuko dute etxean. Hiru partidugutziz erabakiorrak etorkizunak Arrateri zer eskaini diezaiotkeen jakiteko.

Pontevedra-Eibar domekan

LIDERGOAREN BOBROKAN SARTUTA, ESANAHI HANDIKO NEURKETA jokatu du Eibar KE-k domeka arratsaldean Pontevedraren zelaian. Ponferradina gaur egungo liderrak, bestalde, Sestao River hartuko du etxean. Bien arteko lehia bizia dago gaur egun sailkapeneko lehenengo postuaren bila, jakinda horko irabazleak etekin bikoitza izango duela igoera fasea jokatzeko orduan. Ipuruan jokaturako azken jardunaldian azken orduko (93. minutua) garaipena eskuratu zuen Viaderoren taldeak, Altunaren hat-trick batekin.



Eibar KE-k jarraitzen du inguruko taldeekin harremanak sendotzen jarraitzen du; horren adibidea, aurreko astean Oñatiko Aloña Mendirekin lortutako akordioa.

KATU  **KALE**
BIDEBARRIETA, 1 **TABERNA**

Izadi
LORADENDA
- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
C A D E N A
SER
104,0 FM



Eibar B-k jaitsiera postuak sei puntura ditu

EIBAR KE-REN BIGARREN TALDEAK IKARAGARRIZKO AURRERAPAIUSUA EMAN DU azken jardunaldietako emaitzekin eta, jaitsiera postuetan egotetik, arrisku biziko postu horiek partidu bira izatera pasatu da. Aitor Iturberen mutilek garaipen esanguratsua eskuratu zuten domekan ere Leioan (0-3) eta orain elurrarengatik atzeratu zen Amurrioren aurka jokatu beharreko partiduak balore berezia du, jakinik hurrengo partidu bietan Amorebietari eta Real Sociedad B-ri, multzoko lehen bi sailkatuei, egin beharko diela aurre.


Irujo eta Aimarren arteko lehia

ASTELENA BETE EGINGO DA BESTE BEHIN IRUJO ETA AIMARREN ARTEKO LEHIAREKIN, binakako txapelketa nagusiko lehia erabakigarrian. Beroizek eta Mendizabalek lagunduko diete borroka horretan. Aurretik, jaialdia hasteko, Retegi Bi-Cecilio eta Urrutikoetxea-Iza norgehiagoka jokatu da, 2. mailako txapelketa-partiduan. Amaitzeko, bestalde, Cabrerizo II-Urberuaga eta Ibai Pérez-Galartza VI.a bikoteak izango dira lehian.

Bestalde, Klub Deportiboko Agirresarobe-Erik bikotea Udaberri Torneoeko hurrengo fasera pasatu da, ligaxkako partidu guztiak irabazi ondoren. Gaur, 20.15etan, eta torneo berean, Hidalgo-Alvarez Donostiako ordezkariari egingo diete aurre.

Debabarrenako Pereiro triatloiko munduko txapelketan

INMA PEREIRO DEBABARRENA-KIROLGIKO TXIRRINDULARRIAK 14. POSTUAN AMAITU ZUEN triatloiko elite mailako munduko txapelketan. Norvegiar jokaturako proban, Pereirok 1h28'47"ko denbora egin zuen oinezko 6 kilometroak, bizikleta gaineko 10ak eta iraupen-eskiko 8ak betetzeko. Ezin izan zuen 2008an lortutako 11. postua hobetu, baina parte-hartzaileek nahikoa egin zuten baldintza meteorologiko gogorrenei aurre egitearekin.



Xakeko talde biak Deporren jokatu dute bihar

OHIKO ORDUTEGIAN, ZAPATUKO 16.00-ETAN, HASIKO DITUZTE EUREN PARTIDAK Klub Deportiboko xakeko talde biek; baina ohikoa ez den moduan -hau da, talde biak etxean batera jokatuz-, buruari gogor eragingo die herriko xakelari onenek. Euskal Ligako taldeak Peña Rey Ardid Bilboko talde historikoa izango du aurrean eta Gipuzkoako 1. mailakoak Arrasate-San Andres B. Horko nekea gutxi baltiz, domekan, oraindik zehaztu gabeko ordutegian, elurrarengatik atzeratutako Mikel Gurearen aurkako neurketa jokatu dute Euskal Ligakoek.



Asteartero Eibarreko alkatiak **HAMAIIKA BERBA** Irratsaloon orantzungo ditu, eguadiko 12.30etan. Zure kesa, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: eibar@herri-irratia.com SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua) 5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz 943 82 06 44 zenbakira.

90.7 Fm

Presidente berria dauka Ikasten-ek: Jose Antonio Villabella. Eibartar honek Elisa Lopezen lekua hartu du azken honek karguan hiru urte egin ostean. "Hobetzea zaila izango bada ere", gutxienez orain arte bezala jarraitzea da Villabellaren helburua.



JOSE ANTONIO VILLABELLA (Ikasten):

"Gizarteari asko eskaini diezaiokegu"

- Pare bat aste daramatzazu Ikasten-eko presidente moduan. Zer moduz?

Karguari neurria hartzen ari naiz momentuz. Ikasten-en barruan urtebete daramat; izan ere, Esperientzia Eskolako 5. promozioko ikaslea naiz. Ikasten Esperientzia Eskolako ikasle ohiek osatzen duten elkarte da, Esperientzia Eskolaren ostean ikasten, ezagutzen... jarraitu nahi dutenak. Horrela, hainbat batzordetan banatuta dago Ikasten, bakoitza arlo bat lantzen. Horren ondorio dira egindako hitzaldi (goi mailakoak, gainera), etengabeko ikasketa, eta abar.

- Zenbat lagunek osatzen duzue Ikasten?

77 bazkide gara, 55 emakume eta 22 gizon. Hala ere, kopuru hau gora joango dela aurreikusten dugu azken urteetako joera ikusita, eta espero dugu Esperientzia Eskolan amaitzen dutenen %50a gutxi gorabehera etorriko dela gurera.

- Doakoa da bertan parte hartzea?

Gure finantzaketa bazkideen kuotarekin (urtean 30 euro) eta erakunde publikoetatik datorrikin diruarekin osatzen da. Ikasten-en ez dugu ikasten soilik, baizik eta ikasitako hori eta baita aurretik jasotako ikasketa guztia ere gizartera proiektatzen dugu; beraz, uste dugu egiten duguna gizartearen onerako dela. Gaur egun bizi-aukera gehiago dago eta, bestetik, jubilatutakoan lehen egin ezin zenituen gauzak egiteko aukera daukazu.

- Zergatik egon da aldaketa elkarteko presidentzian?

Aurreko presidenteak hiru urte zeramatzen karguan eta gauzak zoragarri egin ditu, baina uste dugu ona dela aldaketa eta hori izan da arrazoia. Osasun ona dauka elkarteak, nahiz eta uste dudana oinarriak sendotu behar direla. Behar duguna lokala da. Daukaguna txiki geratu zaigu eta, adibidez, idazkariak bere etxean du bulegoa. Gure baldintzetara egokitutako lokala behar dugu, berdina beste batzuekin elkarbanatu behar badugu.

- Zein da zure papera presidente moduan?

Elkarteak orain arte bezala ondo funtzionatzea nahi dut. Balio handiko jendeak osatzen du Ikasten eta gizarteari asko eskaini diezaiokegu. Karguak erantzunkizuna dakarkit eta aurrekoa hobetzen saiatuko naiz, oso zaila izan arren. Listoia goian dago, baina ilusioz ekiten diot karguari. Elkartearen sinisten dut eta gizarteari gauza asko eman ahal diogula uste dut.

- Zein da zure papera presidente moduan?

Elkarteak orain arte bezala ondo funtzionatzea nahi dut. Balio handiko jendeak osatzen du Ikasten eta gizarteari asko eskaini diezaiokegu. Karguak erantzunkizuna dakarkit eta aurrekoa hobetzen saiatuko naiz, oso zaila izan arren. Listoia goian dago, baina ilusioz ekiten diot karguari. Elkartearen sinisten dut eta gizarteari gauza asko eman ahal diogula uste dut.




EGUAZTENEAN JENDE UGARI GERTURATU ZEN PORTALEKO ARETO NAGUSIRA Amets Arzallus eta Txomin Txuekak Boliviari buruz egindako diaporama ikustera. Hegoamerikako herrialde horren nondik norakoak azaldu zituzten: indigenen egoera nola aldatu den Evo Morales presidente denetik, La Paz-eko San Pedro kartzelako presoaren egoera, urteetan han egin diren injustiziak... Ikusleek arreta kendu barik jarraitu zituzten Ametsen azalpenak.

Informatika, zinea eta musika Montekan

MONTEKASINO TABERNAK AURRERANTZEAN HILERO ESKAINIKO DUEN EGITARRAU KULTURALAK aurrera darrari: otsailaren 10ean hasitako GNU / Linux ikastaroaren azken saioa datorren astean, eguaztenean egingo da, 18.30-

etatik aurrera. Domekan, berri, Zinema Arroxa ziklo iraunkorren barruan, 19.00etan Roberto Castón zinemagilearen "Ander" pelikula ikusteko aukera egongo da. Eta, otsailko programa agurtzeko, hilaren 28an (domeka) kontzertua emango du DJ Amsia-k. Azkoitiko disko-jartzaileak estilo esperimentalak darabil eta kontzertura joatera animatzen direnak bere musikaren nondik norakoak zuzenean ezagutzeko aukera izango dute. Ekitaldiak herritar guztiei zabalik daudela gogoratu nahi dute antolatzaileek eta honezgero martxorako eskaintza berria prestatzeko beharrez dihardute.



Jabier Herreroen grabatuak Portalean

GAUR ARRATSALDETIK HASI ETA MARTXOAREN 7-RA ARTE Jabier Herrero artista arabarraren lanik berrienak ikusteko aukera egongo da Portalean, bertako erakusketa aretoak hartuko duen "As palavras interditas" izenburuko erakusketari esker. Arte munduko aditu askoren ustez "une honetan Euskal Herriko grabatzaile onenetakoa" den artistak erakuske-




ta prestatzeko orduan eskultura hartu du ardatz modura. Ohiko ordutegian zabalduko dute erakusketa, martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara. Erakusketa berriarekin batera, otsailaren 5az geroztik areto berean martxan dagoen Juan de la Rica-ren "Supermeneos" izenburuko osatzen duten margolanak ikusteko aukera izango da, otsailaren 28ra arte.

“Bookcrossing”, gazteenak irakurtzera animatzeko

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAREN IAZKO JARDUNAREN INGURUKO DATUEN BERRI EMAN ZUTEN martitzenean M^a Jose Telleria Euskara eta Kultura zinegotziak eta Eva Alberdi liburutegiko arduradunak. Urteik urtera liburutegiko arduradunek zerbitzuak eta eskaintza hobetzeko ahaleginetan dihardute beharrea eta, aurkeztutako datuei begiratuz gero, erabiltzaileek ondo aprobetxatzen dituzte eskaintzen zaizkien baliabideak. Besteak beste, 2009. urtean 168.367 lagunek erabili zuten liburutegia eta bertako liburu zein bestelako inguruko 49.139 mailegu egin ziren. Liburutegiak dauzkan bazkideen kopuruak gorantzako joerari eusten dio oraindik ere: 8.179 bazkide zeuden 2009. urtea amaitzean, aurreko urtean baino %8'60 gehiago.

Aste Santu ingururako

Liburutegiko arduradunen helburuetako bat jendea irakurtzera animatzea da eta, horretarako, hainbat jarduera eta programa garatzen dituzte. Aurreko urteetako kanpainekin lortutako emaitzarekin animatuta, ikasturte honetarako prestatutakoak azaldu zituzten: *“Ikasturte honetan 7 eta 25 urte bitarteko gazteentzat pentsatutako jarduerak ipiniko ditugu martxan. Horien artean garatuko dugun lehenengoa 7 eta 12 urteko*




entzat antolatutako Bookcrossing delakoa izango da. Aste Santu inguruan ordubeteko iraupena izango duten lau saio egiteko asmoa dago, talde birekin. Euskeraz eskainiko dira saioak eta egun bakoitzean esparru baten inguruan jardungo dute: lehenengo saioan liburutegia nola erabili eza-gutzera emateko jarduerak egingo dira, bigarren saiorako grabazio-tailerra antolatu dugu, hirugarrenean enkriptazioa landuko da, azken saioan, interesatzen zaiguna nola bilatu ikasiko dute”.

Izena emateko epea martxoaren 1etik 18ra egongo da zabalik eta lau saioetarako matrikulak 5 euro balio du. Udatik aurrera beste kanpaina batzuk garatzeko asmoa dutela aurreratu zuten aste honetako agerraldian: besteak beste, 4 eta 6 urte bitarteko umeei gurasoekin batera parte-hartzeko tailerrak eta 13-25 urte bitarteko gazteentzat euren interesa pizteko moduko tailer monografikoak egingo dira.

Freire-ren hitzaldia eta Narruzko Zezen sariak

MARTITZEN ILUNTZEAN DANIEL FREIRE AKTORE ARGENTINARRAK COLISEOAN eskainitako hitzaldiarekin abiatu ziren ofizialki 33. Antzerki Jardunaldiak. Ekitaldian aurten 25 urte bete di-



tuzten Narruzko Zezen antzez artikulu eta gidoi-
tarako lehiaketako irabazleei sariak banatu zizkie-
ten. Bestalde, aurrealmenta amaituta, oraindik
ere antzezlan gehienetarako sarrerak geratzen di-
ra eta funtzio egunetan, saioa hasi baino ordube-
te lehenago, leihatilari salgai ipiniko dituzte. Ema-
naldi bakoitza amaitzean, berriz, hurrengo egune-
tarako sarrerak erosteko aukera izango da.

laburrak

AITOR CANO TOPALEKUAN
Arrate Kultur Elkarte-
ko Topalekuan aurreko asteaz-
geroztik martxan dagoen
erakusketa domekara arte
bisitatzeko aukera izango
da. Aitor Cano
eibartarraren koadroak
gaur arratsaldean,
19.00etatik 21.00etara eta
bihar eta etzi 12.00etatik
14.00etara eta 19.00etatik
21.00etara ikusteko
moduan izango dira.
Topalekuak hartuko duen
hurrengo erakusketak
“Emakumeak” izenburua
izango du eta otsailaren
26an inauguratuko dute.

EGUEN ZURI LEHIAKETA
Aratosteetan egindako
argazkiak Arrate Kultur
Elkarteak antolatu duen
XIII. Eguen Zuri Argazki
Lehiaketara aurkeztuko
azken eguna otsailaren
23a izango da. Elkartearen
egoitzan edo tabernan
entregatu daitezke lanak
eta hiru sari emateko
asmoa dute (160 euro
lehenengoentzat,
100 euro 2.arentzat
eta 60 euro 3.arentzat).

EIBARTARREN AHOTAN
Lau lekuko berriren
bizipenak gehitu dizkiote
Eibartarren Ahotan
proiektuko fondoari eta
interneten kontsultatzeko
moduan daude, Ego Ibarra
batzordearen webgunean
(egoibarra.com),
Eibartarren Ahotan
izenburuko atalean.
Aurretik zegoen zerrendari
hauek gehitu zaizkio:
Paulino Larrañaga (artista),
Danel Zenarruzabeitia
(enpresa-gizona), Tere
Gantxegi (Goi Argi,
Errehabilitazio Zentroa)
eta Hermenegildo Bracons
(arkitektoa, 1959ko Plan
Generalaren egilea).

KONTZERTUA GAZTETXEAN
Bihar gauean, 22.30etan
kontzertua eskainiko dute
Las Sfonters eta Sin
taldeek. Ondoren,
rock&roll saioa egongo
da Joseph-en eskutik.



Iturburukoak, Bernedon ingelesez

WHAT A WONDERFUL WEEK (ZELAKO ASTE ZORAGARRIA) IN BERNEDO! esaten itzuli dira Iturburuko 6. mailako ikasleak, hango barnetegian aurreko astea eman eta gero. Ikasleek Hezkuntza Sailak ingeleza praktikan ipintzeko Bernedon antolatzen dituen barnetegietako batean parte hartu zuten eta, irakasleek diotenez, *“aste osoa igaro dute benetako britainiar giroan erabat murgilduta. Beraz, argazkiko gazteetako batekin kalean topo eginez gero, ez ezazue galdu ingelesez jarduteko aukerarik!”.*

Otsailaren 19tik 26ra



20 ZAPATUA

17.00 Coliseoan

"Anbotoko Mari eta Orrazi Galdua"

Glu Glu Produkzioak / Bizkaia

Antzezleak: Libe Aranburu eta Ugaitz Alegria

Zuzendaria: Galder Pérez

Ikuslego gazte bezain mokofinari eskainitako euskal antzerkigintzako lan honetan, Odeiren istorioa kontatzen zaigu. Kanean lan egiten duen giza estatua honek Mari moderno bat ezagutuko du, mendiko kobazulora itzuli nahi ez eta urrezko orrazia galdu zaiola asmatuko duena. Hor biziko du Odeik bere abentura, hiriko lurrazpiko munduan eta, izaki mitologikoekin batera, Marigandik ikasiko du bihotzetik sinisten dena benetan existitzen dela.

21 DOMEKA

20.30 Coliseoan

"Krosny"

Ireneusz Krosny / Polonia

Antzezlea eta zuzendaria: Ireneusz Krosny Europako mimo ospetsu eta errespetatuenetakoa da. Bere ibilbidea Poloniako telebistan hasi zuen eta 1992an One Mime Theatre aurkeztu zuen, ordutik sariak bata bestearen atzetik jasoz, tartean "Chicago Reader" aldizkariaren Kritika Saria. Bere ikuskizuneko istorioak eguneroko bizitzaren inguruko hausnarketan dute ardatz eta guztietan aurkituko ditugu keinuaren hizkuntza, originaltasuna eta "umore zuri" paregabea.



22 ASTELEHENA

20.30 Coliseoan

23 MARTITZENA


19.00 eta 22.00 Coliseoan

"La vida por delante"

Focus Producciones / Bartzelona

Antzezleak: Concha Velasco, Ruben de Egia, Carles Canut eta Jose Luis Fernández

Zuzendaria: Jose Maria Pou Momo izeneko mutil arabiar baten ikuspuntutik kontatutako marjinate batzuen istorio xamurra da. Auschwitzetik bizirik ateratzea lortu eta adinean sartuta dagoen Rosa prostitutaren ostatuan bizi da, Pariseko auzo pobreetan galdutako beste mutikoeekin batera. Nerabe baten ikuspuntutik, arrazakeria eta materialismoa salatzen ditu eta gogoeta egiten zahartzaroaren, bakardadearen eta eutanasiaren inguruan.



25 EGUENA 20.30 Coliseoan

"666" Producciones Yllana / Madril


Antzezleak: Fidel Fernández, Raul Cano, Juan Francisco Ramos eta Joe O'Curneen. **Zuzendaria:** David Ottone

Yllana konpainiak ia hamarkada bi daramatza keinu antzerkia eta umorea lantzen dutenen artean munduko onenetakoa izaten: hogeita hamabi herrialdetan izan dira. Sari ospetsuen artean, "666"-k New Yorkeko Fringe Jaialdikoa jaso du. Exekutatuak izateko heriotzaren korridorera eraman berriak diren lau hiltzaile beldurgarrien gorabeherak kontatzen dira bere ohizkoa baino umore beltz gehiago duen lanean.




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, NAROA, gaur sei urte egiten dozuz-eta. Zorionak famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MIKEL, eguaztenian urtebete egin zendualako. Muxu bat etxekuen partez.



Zorionak, IÑAKI, astelehenian urtiak bete zenduaz-eta. Besarkada haundi bat, laguneren partez.




Zorionak, MALEN, martitzenian bost urte egin zenduazelako. Famelixaren partez.




Zorionak, MARI JOSE, martitzenian urtiak bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat laguneren partez.



Zorionak, NAIA Jauregi Cuevas, astelehenian urte bi egingo dozuzelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IRATI Arakistain Mendizabal, hareñegun zazpi urte bete zenduazelako. Famelixa osuaren partetik.



Zorionak, XUBAN Aranzabal Baskaran, gaur zure lehen urtebetetzia da-eta. Zure ama eta aittaren laguneren partetik.

JAIOTAKOAK

- Julen Prieto Hidalgo. 2010-II-6.
- Aisha Ansar. 2010-II-7.

HILDAKOAK


- Javier Narbaiza Arana. 66 urte. 2010-II-11.
- Luisa Gisasola Elorza. 94 urte. 2010-II-12.
- Irene Gandarias Nazabal. 90 urte. 2010-II-12.
- Julia Sánchez Fernández. 86 urte. 2010-II-12.
- Anton M^a Goikoetxea Ruiz del Portal. 75 urte. 2010-II-14.
- Bautista Blanco Puras. 83 urte. 2010-II-15.
- Miguel Angel Egidazu Eguen. 58 urte. 2010-II-15.
- Esperanza García Carretero. 86 urte. 2010-II-17.

zinea Coliseoan

19an, 20.30etan;
20an, 17.00, 19.45 eta 22.30etan
21ean, 17.00 eta 20.00etan;
22an, 20.30etan

"Percy Jackson..."

Zuzendaria: Chris Columbus
 Aktoreak: Logan Lerman, Kevin MacKidd, Rosario Dawson, Uma Thurman...



Zer gertatuko litzake Jainko Greko baten ondorengoa zarala jakinez gero? Percy-k hori jakin du, baina are gehiago. Izan ere, Jainkoen arteko burruka handia izan behar da laster eta horren aurrean bere burua prestatu beharra du...

"La cinta blanca"


Zuzendaria: Michel Haneke
 Aktoreak: Ulrich Tukur, Josef Bierbichler, Susanne Lothar, Janina Fautz...



1913an, Alemaniako iparraldeko herri protestante batean, gauza arraroak gertatzen hasten dira. Bihitegi batek su hartuko du, mutiko bi bahitu eta torturatuko dituzte; eskolako maisua ikertzen hasiko da eta gutxinaka sinestezinezko egia-aren jabe egingo...

"Arthur y la venganza..."


Zuzendaria: Luc Besson
 Pertsonaiak: Freddie Highmore, Mia Farrow, Robert Stanton...



Arthur Minimoy-en mundura bueltatzeko da, Seleniarekin bat egiteko. Badaki Minimoytarrek jaialdi handia prestatuko dutela, baina gauzak ez dira beharko luketen moduan urtego, Selenia berriro dago arriskuan...

"Ander"

Zuzendaria: Roberto Castón
 Aktoreak: Eriz Alberdi, Joxean Bengoetxea, Unax Martín, Pedro Otaegi...



Arratiako baserri batean, berrogei urteak beteak dituen Anderrek istripua izango du eta, bere orde, Jose perutarra hartuko dute etxean laguntzeko. Ander aldatu egingo da eta baita bere harremana ere Peio eta Reme lagunekin...

horoskopoa

ARIES

Krisia, noiz pasatuko da? Kokoteraino zaude berba hori entzuteaz. Baina zuk igartzen al duzu? Ahalik eta hobetoen moldatzen zara behintzat.

TAURUS

Oraindik aratosteetako ajearekin? Ederto pasa zenuen; zure kokojantzia ez zen berezia, baina barre handiak bota zenituzten horren kontura.

GEMINI

Egunak joan, egunak etorri, ez zara saiatzen barruan duzun arazo hori konpontzen. Zeri diozu beldurra? Erraz konponduko duzu, lasai.

CANCER

Oso gustuko ez duzun lan bat egin beharko duzu, baina hasiera batean oso erakargarria irudituko ez bazaizut ere, oso pozik amaituko duzu.

LEO

Kontuz kalean, ez zaitetz labandu! Neguko hotz hauekin kaleak labainkor egoten dira askotan eta denok dakigu nolakoa zaren zu...

VIRGO

Hegazkinak bezain altu hegan egin nahi duzula? Ametsetan agian edo zure imaginazioarekin. Lehendabizi ondo lurreratzen ikasi!

LIBRA

Ez duzu jakingo zer egin, eskuak izerditu egingo zaizkizu eta gorri-gorri ipiniko zara. Zergatik lotsa hori? Oso gustuko duzu, ezta?

SCORPIUS

Hotz honen aurrean zer hobe udan pentsatzen hastea baino? Hondartzan, beroan, mendi-ibileretan ... planak egiten hasi zaitetzke.

SAGITTARIUS

Zeinen ondo hartuko duzun txokolate beroa domeka arratsaldean. Txurroak erosten badituzu hobe, horrekin afaldu ere ez duzu egingo.

CAPRICORNIUS

Ez da berritasun handirik izango zure bizitza aste honetan, baina aldaketa baten aurrean zaude eta igarriko duzu. Onerako aldaketa da, lasai.

AQUARIUS

Ez izan presarik, gauzak ondo egingez gero emaitza onak lortuko dituzu; denbora kontua da, besterik ez. Badakizu, soseguz, tipi-tapa, tipi...

PISCIS

Tripak nahiko nahasiak edukiko dituzu. Ezer jateko gogorik ez duzu edukiko, baina egin ahalegin bat bestela deshidratatu egingo zara-eta.

Zapatua 20

EGUNKARIAREN ALDE

12.30/14.00.- Euskaldunon Egunkariaren aldeko Elkartasun Eguneko jaialdia. Untzagan.

UMEENDAKO ANTZERKIA

17.00.- "Anbotoko Mari eta Orrazi Galdua" (Glu Glu produkzioak). Sarrera: 4 euro. Coliseoan.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- "Alvin y las ardillas 2". Sarrera: 2'80 euro. Amañako Kultur Aretoan.

KONTZERTUA

22.30.- Las Sfinnters + Sin + rock&rolla Joseph-en eskutik.

Domeka 21

KONTZERTUA

12.30.- Usartza Txistulari Bandaren kontzertua. Untzagan.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- "Alvin y las ardillas 2". Sarrera: 2'80 euro. Amañako Kultur Aretoan.

FILMA

19.00.- "Ander" (Zuz: Roberto Castón). Montekasino tabernan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- "Krosny" (Ireneusz Krosny, Polonia). Coliseoan.

Astelehena 22

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- "La vida por delante" (Focus Producciones, Bartzelona). Coliseoan.

Martitzena 23

IKASTEN

10.00.- "Grandes tesoros de la arqueología II", M^o Jose Noainen eskutik. EPAn (Isasi, 39).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19.00 eta 22.00.- "La vida por delante" (Focus Producciones, Bartzelona). Coliseoan.

Eguaztena 24

IKASTAROA

18.30.- "GNU Linux sistemak". Montekasino tabernan.

HARIXA EMOTEN

19.00.- "Ez obeditu inori", Mikel Peruarenaren liburuaren inguruko tertulia. ...eta kitto! Euskara Elkartean.

Eguena 25

IKASTEN

10.00.- "Factores que condicionan el nacimiento de un movimiento artístico", Ricardo Aldamaren eskutik. EPAn (Isasi, 39).

11.30.-

Bideokonferentzia: "La Meteorología tradicional", Pello Zabalaren eskutik. Hezkuntza Esparruan (Injeniaritza Unibertsita Eskolan).

IKASTAROA

18.30.- ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatutako gozogintza ikastaroa. Portalean (sukaldean).

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- "666" (Producciones Yllana, Madril). Coliseoan.



UMEENDAKO ANTZERKIA:

"Anbotoko Mari eta Orrazi Galdua". (Glu Glu) Otsailak 20, 17.00.


DENBORAPASAK

5			3				
					2		7
6	8		2		4		5 9
1							2
	6	4	9		2		1
	7		8	4	1	5	
				2	9	6	3 5
2	1		4	3	6	9	
3			5			4	

SUDOKUA

5	4	7	3	8	2	9	8	1
2	9	8	4	7	1	6	3	5
8	3	1	8	5	9	2	4	7
1	7	5	2	4	8	3	6	9
3	8	4	9	1	8	5	7	2
9	2	6	7	3	5	4	1	8
7	5	9	8	8	8	1	2	4
8	1	3	5	2	4	7	9	6
4	8	2	1	9	7	6	5	3

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

– Otsailaren 21era arte

AITOR CANO. Topalekuan.

– Otsailaren 28ra arte

Eibarko Klub Deportiboko **JUAN DE LA RICA** -ren "Supermeneos" margo erakusketa. *Portalean.*

JOSE GALLARDOren "Bajo para ver tus sueños" argazki erakusketa. El Ambigú tabernan.

"FOTO MONTCADA '09" argazki erakusketa. Depor tabernan.

IBAI ARMENTIAren argazki erakusketa. Portalea tabernan.

– Martxoaren 7ra arte

JAVIER HERREROren "As palabras interditas" grabatuak. *Portalean.*

ikastaroak

- Gurasoendako Hezkuntza Estrategiak.

Lehen Hezkuntza eta 1. zikloko ikasleen gurasoentzat. Noiz: Martxoak 15, 22, 24 eta 31an, 18.00etatik 20.00etara, Portalean. Informazioa eta eskaerak aurkeztea: Martxoaren 10era arte, Pegoran.

- Gurasoendako Ikastaroak.

2 eta 7 urte bitarteko seme-alabak dituztenentzat. Noiz: Martxoak 4, 8, 18 eta 25ean, 18.00etatik 20.00etara, Portalean. Informazioa eta eskaerak aurkeztea: Martxoaren 24ra arte, Pegoran.

- "Zer jakin behar dute gurasoek sare sozialei buruz?".

DBH eta batxilergoko ikasleen gurasoentzat. Noiz: Apirilak 15, 22, 29 eta maiatzak 6, 18.00etatik 20.00etara, Portalean. Informazioa eta eskaerak aurkeztea: Martxoaren 15etik 31ra, Pegoran.

lehiaketak

- Industriagintzari buruzko IV. Argazki Lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: Otsailaren 26a. Informazioa: Armeria Eskolan, aaa@armeriaeskola.com

- XIII. Eguen Zuri argazki lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: Otsailaren 23ra arte. Arrate Kultur Elkarte. Informazioa: 943 202299 telefono zenbakian edo arrate.kultu@eibar.org

- "Ixua-Valenciaga Memoriala" argazki lehiaketa.

Lanak aurkeztea eta informazioa: Apirilaren 28ra arte, Eibarko Txirrindularien Elkarte (Pagaegi, 3), cce@clubciclistaeibarres.org

- Armagintzaren Museoren I. Ipuin Lehiaketa.

Lanak aurkeztea eta informazioa: Martxoaren 30era arte, Pegoran. www.armia-eibar.net

- Euskarabila Ipuin Erotikoen 15. Lehiaketa.

Lanak aurkeztea eta informazioa: Apirilaren 23ra arte. Euskarabila Elkarte (Basauri), euskarabila@topagunea.com

farmaziak

19, barixakua

EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

20, zapatua

EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

21, domeka

EGUNEZ Las Heras (Sostotarren, 20)
GAUEZ Las Heras (Sostotarren, 20)

22, astelehena

EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

23, martitzena

EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

24, eguaztena

EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

25, eguena

EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

26, barixakua

EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Mendaro osp.	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol. Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.50 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.50, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.50, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapateria: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.50 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapateria: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapateria: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdi). Zapateria-Domeka-Jaieguna: 06.50etik 21.50era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdi. Zapateria-Domeka-Jaieguna: 07.55etik 21.55era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.13etatik 20.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisia salgai Eibarko erdialdean. 130 m². 3 logela, komun bi eta despentsa. Guztiz berriztuta. Aukera ezinhobea pisu handiago batera aldatzeko. Tel. 626-203838.

– Errebal kalean duplexa salgai. 4 logela, egongela, sukalde handia, komun bi, despatoa eta terraza. Berriztua eta argitsua. Deitu arratsalde. Tel. 605-772606.

– Elgoibarko erdialdean pisua salgai. 3 logela, terraza handia eta garajea. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 685-724553.

– Pisia salgai Ipuruan, J.A. Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukalde despentsarekin, komuna eta trasteroa. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 661-291898 edo 610-603631.

– Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berriztua. 25.000.000. pta. Tel. 659-687736.

1.2. Errentan

– Pisia hartuko nuke alokairuan Urkizu aldean. Merkea. Tel. 648-196651.

– Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 646-048823 edo 636-430546.

– Logela alokagai emakume bat edo birtzat. Tel. 690-311429.

– Logela alokagai, Untzagatik gertu. Kafakzioa eta wifi. Tel. 620-633434.

– Pisia hartuko nuke Eibar inguruan. 2/3 logelakoa. Tel. 690-980846.

– Eibarren pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukalde-jangela eta bainugela bi. Berogailua eta fibra optikoa. Inguru lasaia. Tel. 943-201294 edo 645-728317.

– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 645-366850 edo 943-530517.

– Logela alokagai. Tel. 690-156040.

– Pisia alokatuko nuke Eibarren. Tel. 943-208178 edo 629-976131.

– Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2 edo 3 logelakoa. Tel. 608-975207. Laurin.

– Pisia hartuko nuke alokairuan (ganbara), lagun batendako modukoa. Tel. 678-150053 edo 609-248845.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Lur-eremua edo txabola erosi edo alokatuko nuke. Tel. 687-043593.

– Garaje itxia salgai Txomon. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

– Eibar erdialdeko taberna traspasatzen da jabea jubilatzen delako. Zabalik dago. Prezio ezinhobea. Tel. 943-207019.

– Urkizun bat-bi plazako garajea salgai. Tel. 629-590701.

3.2. Alokagai

– Garaje itxia alokagai Urkizu 9ko dorrean. Tel. 943-200743.

– Garaje itxia Abontzan alokagai. Tel. 615-712216.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajek: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da umeak zaindu, etxeko garbiketak egin edo sukaldean laguntzeko. Tel. 663-655509.

– Neska eskaintzen da garbiketara lan egiteko. Tel. 634-741119.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketak egiteko. Orduka edo externa. Tel. 669-431135.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Tel. 638-261949.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketara lanerako. Tel. 626-329979.

– Mutila eskaintzen da banatzaile moduan edo eraikuntzan igeltsero laguntzaile lanerako. Tel. 689-985800.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketara lanerako. Tel. 645-719725.

– Neska eskaintzen da garbiketak egin edo kamarera moduan lan egiteko. Tel. 639-403441.

– Neska eskaintzen da garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko. Tel. 669-806170.

– Emakumea eskaintzen da 15.00etatik aurrera eta asteburuetan nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Tel. 616-397348.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko astelehenetik barixakura. Tel. 680-223378.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketara lanerako. Tel. 680-223378.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu eta beste edozein lan egiteko. Tel. 648-210838 edo 665-513851.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketara lanerako. Interna edo externa. Tel. 663-657729.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketara lanerako. Interna edo externa. Tel. 671-296428.

– Neska eskaintzen da arratsaldean edo gauetan nagusiak zaintzeko. Tel. 671-972733.

– Kamarera eskaintzen da asteburuetan eta arratsaldean lan egiteko. Esperientzia. Tel. 672-076852.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaearak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Mutil gaztea eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan, garbiketara lanak egin edo nagusiak zaintzeko. Tel. 653-402884.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, tabernan jardun edo garbiketara lanerako. Tel. 608-147559.

– Mutila eskaintzen da banaketa lan egiteko. Tel. 658-719676.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Tel. 686-435056.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Tel. 656-493864.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Tel. 616-690415.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Tel. 618-052967.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu (interna) eta taberna edo soziedadeak garbitzeko. Tel. 943-207285 edo 609-944818.

– Mutila eskaintzen da kamarero moduan edo beste edozein lanerako. Tel. 680-837476.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo beste edozein lanerako. Tel. 652-906263.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Interna edo externa. Tel. 645-651309.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 699-653874.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketak egiteko. Interna edo externa eta asteburuetan. Tel. 666-771151.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketak egiteko orduka. Tel. 662-284425.

– Geriatria laguntzaile eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 618-377283.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketara lanerako. Arratsaldean eta asteburuetan. Tel. 676-035738.

– Eibarko neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko orduka. Tel. 626-566776.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketara lanak egin edo tabernetan jarduteko. Erreferentziak. Tel. 943-120299 edo 672-203675.

– Eibarko neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko. Tel. 636-302237.

– Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanerako. Tel. 687-114707.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa eta orduka. Tel. 608-897639.

– Gizona eskaintzen da aire egokituko galdarak muntatzeko 1. mailako ofizial moduan. Tel. 610-545505.

– Emakumea eskaintzen garbiketara lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 610-545505.

– Gizona eskaintzen da edozein lanerako. Esperientzia elektrizista eta iturgin moduan. Ingelzarekin. Tel. 657-683887.

– Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak edo mendekotasunak dituztenak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 671-232742.

– Neska arduratsua eskaintzen da goizez umeak zaindu eta garbiketara lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 678-534041.

4.2. Langile bila

– Kamarera behar da herriko erdialdean asteburu edo jai egunetarako. Arratsaldean eta gauetan. Tel. 653-019962.

– Sukalde-laguntzaile behar da jatetxe baterako. Tel. 943-121262.

– Ugan Klub-ak pertsona behar du harretarako. Zapatu goizetan eta astean ordu gutxi batzuetarako. Tel. 943-820452.

– Kamarera/o behar da Deporren asteburuetarako. Deitu 11.00etatik 23.00etara. Tel. 943-207044.

– Kamareroak behar dira Arraten asteburuetarako. Autoarekin. Tel. 677-638184.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Urdaitegiko ebakitzeko makina salgai. 400 euro. Tel. 649-744187.

– Saretoko eta tapizatutako butaka bi salgai. Berriak. Tel. 943-208282.

– Play Station-a salgai, oso merke. 12 joku eta memoria txartelarekin. Tel. 943-120030.

– Ume jaio berriarentzako kotxe-silla salgai. Arrue markakoa. Egoera oso onean. 200 euro. Tel. 609-737591.

– Gidatzeko karnetaren matrikula saltzen dut erdi prezioan, kanpora noalako bizitzera. Probaleku kaleko Ermua Autoeskolan. Tel. 695-737204.

– Bigarren eskuko patinak erosiko nituzke. 38 zenbakikoak. Tel. 646-293311.

– Telebista salgai. Berthen markako 21"koa. 6 urte. Mandoarekin eta Philips osagaiak. 90 euro. Tel. 656-736057.

– Emakumearen eztei-jantzia salgai. Tel. 617-256466.

6.2. Eman

– Urte biko txakurra oparitzen da, ezin delako atenditu. Pitt-bull eta retrieveraren nahasketa. Tel. 636-858552.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Bi urte eta erdiko txakurra galdu da Matsaria inguruan. Crema koloreko mastina. Tel. 605-730123.

Lanerako-orduta
kusten jarraitzeak prestatu!
Gurekin duzu aukera!



ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- MEK2 mekanizazioa
- ME2 mantenimendu elektromekanikoa

SARBIDE PROBA: A eta D eredua

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- EF13 Energia berriztagarriak **BERRIA**
- AF3 Administrazioa
- DA3 Informatika
- ST3 Telekomunikazioak
- SR3 Elektrizitatea / Elektronika
- FMP3 Fabrikazio mekanikoa
- PF3 Galdaketa eta pulbimetalurgia
- IA3 Elikagaien Industriak



BARIXAKUAN ORAINDIK AUKERA DUZU GUREKIN EGOTEKO

sarrerak salgai : El Tío Palancas
(Juan Gisasola), Geltoki (T. Etxebarria)
eta e&m argazki denda (Urkizu)



otsailak 26, barixakua
saioak: 17.00 eta 19.00

PuRritx Porrotx
MaRiNotots

otsailak 27, zapatua
saioak: 16.00 eta 18.30

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA

T. Etxebarria, 7
Tel. 943 70 23 84



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
clínica dental - hartz klinika

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75